

## Triangeluko arrain frantsesak

*Hondarribia*, 5. zk., 1986-07/08: 5.

Arrain frantsesei matrikula jarriko omen diote.

Hegalean: F. kotxeei bezala.

Historian zehar inoiz gertatu ez dena ikusi behar ote dugu?

Hara gure herriko historiak zer dion: Euskalerriko arrantzaleek *Kofradiak* aspaldi-aspaldi sortu zituzten, eta Hondarribiako *Done Pedro Kofradia*, 1361an eratu zen. Batez ere bi gauzetarako: 1) herriko arrantzaleen arteko lan-arazoak konpontzeko, eta 2) itsasoko *kalak* errespetatu eta gainontzekoei errespeta arazteko.

Orain, kala hauen artean bat, *Eskotekoa*, frantsesek triangelu arraro batean sartu digute; eta asmo oker batekin: Hondarribiako arrantzaleei itsaso alde horretan arrantza egitea debekatzeko.

Zer da hau? Seihun urte han lanean aritu eta gero, Europako elkartean sartuak ginela uste genuen momentuan, sortu digute frantsesek, arrain handiak arrain txikiak jateko xixtima zaharra: *Zortzigarren C zona* izeneko Triangelua. Ez dute triangelu hau itsasoan klerionarekin markatu, ez baita kleraren marka uretan geratzen, eta markatzeko xixtima honen orde, lehorreko mapa batetan, paperean eta tinta beltzez, egin digute inbentoa.

Hondarribiako arrantzaleak ezin dute konprenitu triangelu honen arrazoia.

Nola ulertu sorginkeria hau?

Baina hor daude Frantziako gerrontziak, barratik nor irtengo eta noraldea joango den begira, zain. "Liberté, Fraternité eta Egalité" lemaren izenean, noski!

Arazo honetan tristena zera da, herri oso honen eskubideak berez argi egon behar luketen garaian, Europako herri guztiak demokrazian askatasun eta eskubide berdinak izan behar lituzteken memento honetan, hemengo arrantzaleetako batzuk horrelako legezkantopoko debekuak nozitu beharra.

Non geratzen dira herri honetako gizonen eskubideak?!

Simon Bolivar handiak esan zuen behin, itsasoan goldaketan aritzea alperrikako lana dela; hau, egia da; baina gaurko egoera hau epaitu behar balu, ikusiko lioke arranuntzien joan-etorriko mila eta mila ibilera luze eta heriotzez balizatua dagoen honi arrantzaleen lan eta nekeak irabazitako eskubide ageria.